

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2024ko ekainaren 22tik ekainaren 28rako astea.**

## I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

### B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

**2024/06/21**

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Merkataritza Orokorreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren aldaketa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000565011983). **III-131 xedapena-28 or.**

## II.- XEDAPEN OROKORRAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

**2024/06/22**

- **GIZARTE ESKUBIDEETAKO, KONTSUMOKO ETA 2030 AGENDA KO MINISTERIOA. Jokoa.** 2024ko ekainaren 6ko Ebazpena, Joko Antolamenduko Zuzendaritzak emana, informazioa monitorizatzeko sistemaren datu-eredua onesteko eta 2014ko urriaren 6ko eta 22ko uztailaren 12ko ebazpenen I. eranskinak aldatzeko, zeinak Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legean aurreikusitako espezifikazio teknikoei eta joko-jardueretako parte-hartzearen identifikazioari eta debekuei buruzkoak baitira. **12639 xedapena- 80 or.**

**2024/06/25**

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** 2024ko ekainaren 17ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, Gizarte Segurantzaren esparruan izapideak elektronikoki egiteko baimenak kudeatzeko prozeduran bidalitako ebazpen eta komunikazio automatizatuen izapideak ezartzeko. **12857 xedapena- 3 or.**

## 2024/06/26

- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2024ko ekainaren 20koa, Diputatuen Kongresuak emana, zeinaren bidez agintzen baita argitara dadila ekainaren 4ko 3/2024 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko akordioa. Errege lege-dekretu hori gazteek 2024ko udako bidaietarako lurreko garraio publiko kolektiboa erabil dezaten sustatzeko neurriei buruzkoa da. **12860 xedapena- 1 or.**
- **GARRAIOKO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIKO MINISTERIOA. Itsasoko garraioa.** 587/2024 Errege Dekretua, ekainaren 25ekoa, gupil bidezko ontzi-aldaketako bidaiari-ontziei aplikatu beharreko egonkortasunari dagozkion preskripzio espezifikoiei buruzkoa. **12861 xedapena- 31 or.**

## 2024/06/27

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** 4/2024 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurriak luzatzen dituen eta presazko neurriak hartzen dituen esparru fiskalean, energetikoan eta sozialean. **12944 xedapena- 62 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2024ko ekainaren 20koa, Diputatuen Kongresuak emana, zeinaren bidez agintzen baita argitara dadila maiatzaren 21eko 2/2024 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko akordioa. Errege lege-dekretu horren bidez, presako neurriak hartzen dira langabezia-babesaren laguntza-maila sinpletzeko eta hobetzeko eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1158 (EB) Zuzentarauaren transposizioa osatzeko —guraoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta bizitza profesionala bateragarri egiteari buruzkoa da, eta 2010/18/EB Zuzentaraia indargabetzen du—. **12945 xedapena- 1 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. Aurrekontuak.** HAC/641/2024 Agindua, ekainaren 25ekoa, Estatuko 2025eko Aurrekontu Orokorak egiteko arauak ezartzen dituen. **12946 xedapena- 63 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** 2024ko ekainaren 17ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiarena, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten mutualitateei kontingentzia arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoen kudeaketarako koefizienteak aplikatzeko baldintzak ezartzen dituen, enpresa elkartuetako besteren konturako langileak direnean. **13038 xedapena- 14 or.**

2024/06/28

- **OGASUN MINISTERIOA. Zergak. Kanarietako araubide ekonomiko eta fiskala.** HAC/646/2024 Agindua, ekainaren 25ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira HAC/66/2002 Agindua, urtarrilaren 15ekoa, 038 eredua onesten duena, erregistro publikoetan inskribatutako erakundeek egindako eragiketak zerrendatzekoa; EHA/3290/2008 Agindua, azaroaren 6koa, zeinaren bidez onesten baitira 216 eredua ("Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako diru-sarrerak. Diru-sarreraren aitorpena-dokumentua") eta 296 eredua ("Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Atxikipenen eta konturako diru-sarreraren urteko aitorpena") eta HAP/296/2016 Agindua, martxoaren 2koa, zeinaren bidez onesten baita 282 eredua "Urteko deklarazio informatzailea, Kanarietako araubide ekonomikoaren eta fiskalaren esparruan eta estatuko bestelako laguntzen esparruan jasotako laguntzena, Europar Batasuneko zuzenbidea aplikatzetik eratorriak badira" eta ezartzen baitira hura aurkezteko baldintzak eta prozedura. **13049 xedapena- 21 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. Estatuko sektore publikoa. Ordainsariak.** Ebazpena, 2024ko ekainaren 27koa, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak emana, jarraibideak ematen dituen Estatuko sektore publikoko langileei 2024rako ehuneko biko soldata-igoera ordaintzeko; igoera hori aurreikusten da Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurriak luzatzen dituen eta esparru fiskalean, energetikoan eta sozialean presazko neurriak hartzen dituen ekainaren 2ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluan. **13050 xedapena- 4 or.**

## E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/06/22

- **AGINTARIAK ETA LANGILERIA. Izendapenak, egoerak eta gorabeherak. GOBERNUKO PRESIDENTZIA.** 585/2024 ERREGE-DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, Iñigo Urkullu Renteria jauna Eusko Jaurlaritzako lehendakari kargutik kentzeko dena. **3013e xedapena- 1 or.**
- **AGINTARIAK ETA LANGILERIA. Izendapenak, egoerak eta gorabeherak. GOBERNUKO PRESIDENTZIA.** 586/2024 ERREGE-DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, Imanol Pradales Gil jauna Eusko Jaurlaritzako lehendakari izendatzeko dena. **3014e xedapena- 1 or.**

## 2024/06/24

- **LEHENDAKARITZA.** 18/2024 DEKRETUA, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen. 3015e xedapena- 15 or.

## 2024/06/25

- **LEHENDAKARITZA.** 19/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Jaurlaritzako sailburuek beren eginkizunak utzi dituztela deklaritzen duena. 3019e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 20/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua izendatzeko dena. 3020e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 21/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Jaurlaritzako bigarren lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua izendatzeko dena. 3021e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 22/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Ogasun eta Finantzetako sailburua izendatzeko dena. 3022e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 23/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua izendatzeko dena. 3023e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 24/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua izendatzeko dena. 3024e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 25/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Segurtasuneko sailburua izendatzeko dena. 3025e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 26/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Hezkuntzako sailburua izendatzeko dena. 3026e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 27/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua izendatzeko dena. 3027e xedapena- 1 or.

- **LEHENDAKARITZA.** 28/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Osasuneko sailburua izendatzeko dena. 3028e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 29/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua izendatzeko dena. 3029e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 30/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Mugikortasun Jasangarriaren sailburua izendatzeko dena. 3030e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 31/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburua izendatzeko dena. 3031e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 32/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua izendatzeko dena. 3032e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 33/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua izendatzeko dena. 3033e xedapena- 1 or.
- **LEHENDAKARITZA.** 34/2024 DEKRETUA, ekainaren 24koa, lehendakariarena, Justizia eta Giza Eskubideen sailburua izendatzeko dena. 3034e xedapena- 1 or.

## 2024/06/28

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** 77/2024 DEKRETUA, ekainaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoan angularen arrantza profesionala arautzekoa eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzekoa. 3015e xedapena- 15 or.

## E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

## 2024/06/28

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 346/2024 Erabakia, ekainaren 4koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan 2023-2024 kanpainen eskola kirola garatzeko dirulaguntza lerro baten deialdia. 2050e xedapena- 8 or.

**B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**2024/06/25**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 290/2024 Foru Agindua, ekainaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 92 ter artikuluko zerga alorreko zor eta zehapenengatik Gipuzkoako Foru Ogasunaren zordun direnen zerrendak zein egunetan argitaratu ezartzen duena eta zerrenda horien fitxategi eta erregistroak zehazten dituen. **4683 xedapena- 2 or.**

**2024/06/28**

- **DIPUTATU NAGUSIA.** 4/2024 Foru Dekretua, ekainaren 27koa, ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa, aldatzen duena. **4867 xedapena- 1 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 298/2024 Foru Agindua, ekainaren 25koa, zeinaren bidez aldatzen baita 272/2024 Foru Agindua, ekainaren 14koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zergabilketa kudeatzen laguntzen duten erakundeen zerrenda zehazten duena. **4801 xedapena- 2 or.**

**E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)**

**2024/06/25**

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Batzordearen 2024/1772 Erregelamendu Eskuordetua (EB), 2024ko martxoaren 13koa, zeinak osatzen baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/2554 Erregelamendua, IKTei eta zibermehatxuei lotutako gorabeherak sailkatzeko irizpideak zehazten dituzten, garrantzi erlatiboko atalaseak ezartzen dituzten eta gorabehera larrien jakinarazpenen informazio xehatua zehazten duten erregulazio-arau teknikoen bidez. **L-1772 xedapena- 9 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Batzordearen 2024/1773 Erregelamendu Eskuordetua (EB), 2024ko martxoaren 13koa, zeinak osatzen baitu Europako Batzordearen eta Kontseiluaren 2022/2554 Erregelamendua (EB), IKTen hirugarren hornitzaileek emandako zerbitzuen funtsezko funtzioak edo funtzio garrantzitsuak bermatzen dituzten IKT-zerbitzuen erabilerari buruzko kontratu-akordioen politikari

dagokion eduki xehatua zehazten duten erregulazio-arau tekniko bidez. L-1773 xedapena- 9 or.

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Batzordearen 2024/1774 Erregelamendu Eskuordetua (EB), 2024ko martxoaren 13koa, zeinak osatzen baitu Europako Batzordearen eta Kontseiluaren 2022/2554 Erregelamendua (EB), IKTei lotutako arriskuak kudeatzeko tresnak, metodoak, prozesuak eta politikak eta IKTei lotutako arriskuaren kudeaketaren esparru sinplifikatua zehazten dituzten erregulazio-arau teknikoei dagokienez. L-1774 xedapena- 37 or.

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2  
HENAO, 26 - BILBAO